

Gure **EGITEKOAN** eta **IKUSPEGIAN** jasotzen den moduan, Eusko Jaurlaritzaren sozietate publiko instrumentala gara, eta xede dugu, beste erakunde batzuekin batera, haren etxebizitzaren eta lurzorua lurralde-politika garatzea eta etxebizitzaren funtzio soziala betearaztea, erosketaren eta alokairuaren bidez. Aktiboki parte hartzen dugu hiri-eraberritzean eta -berrikuntzan, baita etxebizitzaren, azpiegituren eta lotutako zerbitzu publikoen birgaitzean ere. Gure helburua honako hau da: EAEn babes publikoko etxebizitzaren kudeaketaren esparruan erreferenteak izatea eta Eusko Jaurlaritzarentzat funtsezko eragilea izatea planak egitean. Horretarako, gure herritarrei **konfiantzazko eta kalitatezko zigilua** eskaintzen diegu.

Horretarako, Visesakozuzendaritzak agindutako politika publikoak eta Eusko Jaurlaritzaren estrategiak eta planak antolatzeko konpromisoa hartzen du.

- Aplikatu ahal diren gidalerroen, arauen eta erreferentziazko ereduaren baldintzak betetzen ditugu.
- Kudeaketa aurreratuko elementuak lantzen ditugu, **etengabeko hobekuntzaren**, **ikasketaren** eta **berrikuntzaren** bidez.
- Gure kultura **BALORE KORPORATIBO** sendoetan oinarritzen dugu.
- Gure estrategia **jasangarritasunaren** ikuspuntutik garatzen dugu, eta aktiboki parte hartzen dugu gure inguruko gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-hobekuntzan.
- Gure **interes taldeen** gogobetetzea lortzeko asmo argia dugu. Hori horrela, haietzako balio arduratsu eta orekatuko ekarpena bilatzen dugu modu eraginkorrean. Horrez gain, gure izaera publikoari datzekion **legezkotasun-**, **gardentasun-** eta **konfiantza**-printzipioetan oinarritutako harremana dugu haiekin.

Gure kudeaketarako filosofia Plan eta **POLITIKA multzo koherente batean** zehazten da. Horien bidez, egiten duguna eta hori egiteko erabiltzen dugun modua ahal den ondoen betetzen saiatzen gara. Halaber, etengabeko hobekuntzaren eta praktika egokien txertaketaren aldeko apustua egiten dugu. Horretarako, erreferentzia gisa hartzen dugu **Kudeaketa Aurreratuko Eredua** (estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea, berrikuntza eta emaitzak). Horren bidez, aukera dugu gure estrategia prozesuen bitartez modu lerrokatuan zabaltzeko, eta **PDCA ziklo** bat sortzeko (planifikazioa, gauzatzea, jarraipena eta berrikusketa), gure hobekuntzaren motor gisa jarduten duena.

Hori guztia lortzeko, enpresa osatzen dugun **pertsonon** ahalegina eta inplikazioa beharrezkoak dira, eta Zuzendaritzak ardura bere gain hartu du. Horregatik, taldearen giza garapena eta garapen profesionala bilatzen da, berdintasunean oinarritutako lan-giro batean, eta kultura korporatibo sendoa eta erkidea partekatzen da.

Eta horrela jasota gera dadin, jendaurrean jartzen ditugu Kudeaketa Korporatiboko Politika Integratu honetan adierazitako konpromisoak.